

Elortzibarko Udalaren zerbitzurako euskara teknikari lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautapropa.

Deialdiaren lege-erreferentzia: Elortzibarko Alkatetzak 2025eko irailaren 10ean eman 2025-1116 Ebazpena (2025eko urriaren 2an argitaratua, 197. NAOn).

**ELORTZIBARKO EUSKARA TEKNIKARI
IZATEKO HAUTAGAIENTZAKO
LEHENENGO PROBA**

Bigarren ariketa: ezagutza teorikoak

Proba mota: 4 aukerako test galdetegia

Galdera kopurua: 50

Ordezko galderak: 5

Proba egiteko denbora: bi ordu

Noainen, 2025eko abenduaren 13an

**EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA JOAN,
HAS ZAITEZKEELA ESAN ARTE**

**BEHIN PROBA AMAITUTA,
ITXARON ESERITA JARRAIBIDEAK JASO ARTE**

1. Euskarak izan al du hizkuntza ordezkapeneko prozesurik?

- a) Ez, ez da horrelakorik gertatu.
- b) Bai, baina ez du eragin esanguratsurik izan.
- c) Bai, baina hiztun euskaldun elebakarrak mantendu egin dira.
- d) Bai, eta hiztun euskaldun elebakarrak ia desagertu egin dira.

2. Leonard Bloomfielden arabera, hizkuntza komunitatea:

- a) Hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten gizataldea izan daiteke.
- b) Estatuarekin parekatu daiteke.
- c) Hizkuntza bera erabiltzen duen gizataldea da.
- d) Etniarekin parekatu daiteke.

3. Fergusonen iritziz, hizkuntza egoera diglosikoa:

- a) Nahiko iraunkorra da.
- b) Nahiko bitxia da.
- c) Nahiko ezegonkorra da.
- d) Nahiko psikologikoa da.

4. Fishmanen iritziz:

- a) Gizabanakoak elebidunak dira eta gizarteak, ordea, diglosikoak.
- b) Gizabanakoak eta gizarteak elebidunak izaten ahal dira.
- c) Gizabanakoak diglosikoak dira eta gizarteak, ordea, elebidunak.
- d) Gizabanakoak eta gizarteak diglosikoak izaten ahal dira.

5. Hizkuntza minorizatuak dira:

- a) Hizkuntza ofizialak ez direnak.
- b) Erabilera eremuak murriztuak dituztenak.
- c) Hizkuntza minoritarioak direnak.
- d) Adineko hiztunak soilik dituztenak.

6. Fishmanen arabera, hizkuntza bat ordezkatzeko arrazoietakoa bat «dislokazio soziala» da, eta honela defini daiteke:

- a) Demografia aldatzen (migrazioak, urbanizazioa...) eta arnasguneak ahultzen dira.
- b) Talde batek botere apalagoa eta prestigio txikiagoa du.
- c) Homogeneizazio handia dago.
- d) Modernizazioa eta demokrazia falta da.

7. Sánchez Carriónen arabera, zein da hizkuntza komunitatearen zentroa?

- a) AA.
- b) BA eta AA.
- c) AB eta BA.
- d) AA eta AB.

8. Soziolinguistika Eskuliburuaren arabera, hizkuntza aniztasunaren antolamendu juridikoa egin daiteke:

- a) Lurraldetasun printzipioaren arabera.
- b) Pertsonaltasun printzipioaren arabera.
- c) Funtzionaltasun printzipioaren arabera.
- d) Aurreko guztien arabera.

9. Aukera ezazu baieztapen OKERRA:

- a) Askotan, hizkuntza politikan, ez da erabaki edo interbentzio agerikorik izaten.
- b) Ez dago hizkuntza politikarik gabeko gizarterik.
- c) Hizkuntza politika askoren ezaugarria da planifikaziorik eza.
- d) Hizkuntza politika guztietan erabaki edo interbentzioak hizkuntza plangintza batean ageri dira.

10. Manterolaren eta Berasategiren *Hizkuntza gutxituen erronkak* liburuaren arabera:

- a) Munduko hizkuntzen % 3 Asian dago.
- b) Munduko hizkuntzen % 3 Afrikan dago.
- c) Munduko hizkuntzen % 3 Europan dago.
- d) Munduko hizkuntzen % 3 Amerikan dago.

11. Zein da hizkuntza ofizial aitortu gehien dituen herrialdea?

- a) Bolivia.
- b) Japonia.
- c) Italia.
- d) Australia.

12. Aragoiko hizkuntzen legearen arabera:

- a) Aragoiera hizkuntza ofiziala da zenbait eremutan.
- b) Ez dago Aragoieraren Akademia ofizialik.
- c) Aragoiera berezko hizkuntza, originala eta historikoa da.
- d) Aragoiera ofiziala da Aragoi osoan.

13. Ikertzaileen arabera, noiz gertatu zen euskararen galerarik handiena Iruñerrian?

- a) XVIII. mendean.
- b) XIX. mendean.
- c) XX. mendean.
- d) XXI. mendean.

14. Zein erakundek zuen, 1925eko sorrera estatutuetan, euskara erakusteko, laguntzeko, sustatzeko eta zabaltzeko helburua?

- a) Euskaltzaindiak.
- b) Asociación Euskarak.
- c) Eusko Ikaskuntzak.
- d) Euskeraren Adiskideek.

15. Idazle hauetatik, nor izan ziren hego nafarreraz idatzi zutenak?

- a) Joakin Lizarraga eta Joan Miguel Gartzia de Baquedano.
- b) Joakin Lizarraga eta Juan Beriain.
- c) Juan Beriain eta Joan Miguel Gartzia de Baquedano.
- d) Joanes Leizarraga eta Juan Undiano.

16. Orreaga Ibarren Atzoko eta gaurko euskara (*El euskera de ayer y de hoy: variación y contacto*) liburuaren arabera, zein da OKERRA?

- a) Euskara eta gaztelania txandakatzeak baliabide estilistiko jakin batzuk ematen ditu, eta irauten du taldearen nortasuna markatzen duelako.
- b) Arauak betetzen tematzeak kontrako eragina izan dezake gazteen artean.
- c) Belaunaldi berrien euskarak gero eta hibridazio maila apalagoa du.
- d) Gero eta gutxiago bereizten dira landako eta hiriko hiztunak.

17. Ikerlari hauetatik, nork egin zuen euskararen galerari buruzko mapa?

- a) Bonapartek, 1863an.
- b) Brocak, 1889an.
- c) Irigaraik, 1933an.
- d) Mitxelenak, 1988an.

18. Koldo Zuazoren arabera, zein EZ da Nafarroako euskalkia?

- a) Erriberako nafarra.
- b) Ekialdeko nafarra.
- c) Nafarra.
- d) Nafar-lapurterra.

19. Koldo Zuazoren *Euskalkiak, herriaren lekukoak* liburuaren arabera, Bonaparteren arabera zein EZ da Ipar Euskal Herriko edo euskara nafarraren hitza?

- a) Manatu.
- b) Agindu.
- c) Oihan.
- d) Arotz (errementari).

20. Non egin ditzakete Nafarroako herritarrek euskara maila egiaztatzeko proba irekiak (ikastaro batean matrikulatu gabe)?

- a) Zubiarte euskaltegian eta EAEko udal euskaltegietan.
- b) Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetan eta HABEren azterketa deialdi irekietan.
- c) Nafarroako AEK edo IKako euskaltegietan.
- d) Aurreko guztietan.

21. Aukeratu erantzun ZUZENA:

- a) EUDEL udalerri euskaldunen mankomunitatea da.
- b) Nafarroako 22 udalerrik parte hartzen dute EUDEL-en.
- c) UEMAn parte hartzeko ez dago baldintzarik.
- d) Nafarroako 22 udalerrik parte hartzen dute UEMAn.

22. Udaltop ekimena:

- a) Lau urtean behin antolatzen da.
- b) Udalen kalitate adierazleen sistema da.
- c) Duela 5 urte sortu zen.
- d) Udaletako euskara zerbitzuen topaketa da.

23. Nafarroako toki entitateei dagokienez:

- a) Udal gehienek euskara teknikaria dute.
- b) Tokiko euskara teknikariek elkarlanerako sarea sortu dute.
- c) Tokiko euskara teknikariak udaletan soilik daude.
- d) Eremu euskalduneko udal guztiek dute euskara teknikaria.

24. Iurrebasoren eta Goikoetxearen *Esnatu ala hil* liburuaren arabera, aukeratu baieztapen ZUZENA, honako aukeren artean:

- a) Euskararen komunitateak trinkotasuna galdu du.
- b) Euskararen komunitateak duen indargunea elebitasun orekatua da.
- c) Euskal Herriko toki gehienetan ez dago erdalduntze goiztiarrik.
- d) Euskararen komunitateak duen arazo nagusia erabileran dago.

25. Nafarroako enpresa pribatuei dagokienez:

- a) Euskara plana garatzeagatik dirulaguntza jaso dezakete.
- b) Tamaina handiko enpresek euskara plana izan behar dute.
- c) Euskara plana estatutuetan aipatu behar dute.
- d) Eremu euskalduneko enpresek euskara plana izan behar dute.

26. Nork du Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren ardura?

- a) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak.
- b) Hizkuntza Politika Sailburuordetzak.
- c) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak.
- d) Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak.

27. Hizkuntza plangintzak zein arlotan eragiten du?

- a) Barneko eta kanpoko komunikazioan.
- b) Giza baliabideen kudeaketan.
- c) Hizkuntza paisaian.
- d) Aurreko guztietan.

28. Euskara ikasi nahi duen langile publikoari zer eskain dakioke?

- a) Lanorduen konpentsazioa soilik.
- b) Diru saria soilik.
- c) Diru saria edo lanorduen konpentsazioa.
- d) Ezer ez.

29. Zein EZ da hizkuntza ohiturak aldatzeko Aldahitz ikerketako metodologia?

- a) Mintzakide.
- b) Eusle.
- c) Uler-saioak.
- d) Ulerriketa.

30. Nastat-Nafarroako Estatistika Institutuak:

- a) Ez du euskarari buruzko erreferentziazko estatistikarik argitaratzen.
- b) Euskararen ezagutzari buruzko datuak ematen ditu Nafarroako hizkuntza eremuen arabera, udalerrika zehaztu gabe.
- c) Euskararen ezagutza aztertzerakoan, ez ditu kontuan hartzen 18 urtetik beherakoak.
- d) Euskararen ezagutzari buruzko datuak ematen ditu, Nafarroako udalerrien arabera sailkatuz.

31. Hizkuntzen erabileraren kale neurketari dagokionez, aukeratu erantzun OKERRA:

- a) Behaketa bidezko neurketa metodoa erabiltzen da.
- b) Laginketa eredu erabiltzen da.
- c) Elkarriketa da behaketa unitatea.
- d) Ikerketa kualitatiboa da, elkarriketen edukia ere aztertzen delako.

32. Erizeren eta Vilchesen *Euskararen sustapena Nafarroan, erresonantzia soziala duten elementu diskurtsiboetatik abiatuta* ikerlanari dagokionez, aukeratu erantzun OKERRA:

- a) Euskararen aldeko jarrerak Inkesta Soziolinguistikoan jasotako euskararen aldeko jarrerekin bat datoz.
- b) Ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa da.
- c) Hizkuntzekiko jarrera neurtu da.
- d) Talde saioen bidezko metodologia erabili da.

33. Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez:

- a) Bere egituraren itzultzaileak ditu.
- b) Ez dago euskaraz edo hizkuntza plangintzaz arduratzen den unitate espezifikorik.
- c) Medikuntza gradua euskaraz ikas daiteke osorik.
- d) Ingeniaritza graduetan ez da euskarazko irakasgairik eskaintzen.

34. Nafarroan, helduen euskalduntzeari dagokionez:

- a) Euskaltegi gehienak toki entitateen mendekoak dira (udal euskaltegiak).
- b) Ikasleek eta euskaltegiek zenbait dirulaguntza eska ditzakete.
- c) Ikasleek dirulaguntza eska dezakete, baina euskaltegiek ez.
- d) Diru publikoarekin finantzatu arren, ez dago titulartasun publikoko euskaltegirik.

35. Ahoskera jasoari dagokionez, zein EZ da Euskaltzaindiaren gomendioa?

- a) Euskarazko grafiara ekarri diren hitzetan (jogurt, bidet...), jatorrizko ahoskerari eustea, ez baitira jatorriz euskal hitzak [yóğur, bidè...].
- b) <x>ri dagokionez, tradizioko euskal hitzek (mailegu zaharrak barne) euskarak berea duen soinu sabaikariari eusten diote: [axola, xoxo, Uxue...].
- c) Euskaraz ere jatorrizko hizkuntzan bezala idazten direnetan, jatorrizko ahoskerari eustea: Google > [gúge/], De Gaulle [degól], Cagliari > [kállari]...
- d) <x>ri dagokionez, azken urteotan maileguz hartutako hitzen kasuan, [ks] ahoskatzea hobesten du: [seksu, taksi, faksez...].

36. Euskaltzaindiaren 1. arauaren arabera, zein da ZUZENA?

- a) Batik-bat.
- b) Behinik-behin.
- c) Bat batean.
- d) Behinik behin.

37. Euskaltzaindiaren 32. arauaren arabera, zein da OKERRA?

- a) Asturia.
- b) Aragoi.
- c) Errioxa.
- d) Kantabria.

38. Euskaltzaindiaren 47. arauaren arabera, zein hizkuntza izena da OKERRA?

- a) Iberiarra.
- b) Akitaniera.
- c) Egiptoera.
- d) Dalmaziera.

39. Euskaltzaindiaren 52. arauaren arabera, zein da OKERRA?

- a) Pirinioak.
- b) Itsaso Zuria.
- c) Bizkaiko golfoa.
- d) Ebro ibaia.

40. Euskaltzaindiaren 73. arauaren arabera, zein da OKERRA?

- a) Artzaingoa.
- b) Langileria.
- c) Euskaldungoa.
- d) Irakaslegoa.

41. Euskaltzaindiaren 200. arauaren arabera, zein da ZUZENA?

- a) Hego Amerika.
- b) Nilo ibaia.
- c) II. Mundu gerra.
- d) Everest Mendia.

42. Zein EZ da Euskaltzaindiaren hizkuntza baliabidea?

- a) Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA).
- b) Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU).
- c) Arauen Datutegi Onomastikoa (ADO).
- d) Terminologia banku publikoa (Euskalterm).

43. *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* arabera, zein da forma EGOKIA?

- a) Oskarbi zegoen baino, badaezpada, aterkia hartu zuen.
- b) Ez dago bide bat bainan.
- c) Hura hau baino hobea da.
- d) Nire autoa zurea bainan hobea da.

44. *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* arabera, esaldi hauetatik zein da ZUZENA?

- a) Data haietan bidali zuen dokumentua.
- b) Hauek dira bisita egiteko data onenak.
- c) Datarik gabe dator dokumentua.
- d) Dokumentuak ez du fetxarik.

45. *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* arabera, esaldi hauetatik zein EZ da zuzena?

- a) Kultura Ministerioa.
- b) Nafarroako delegaritza.
- c) Tutoretza orduak.
- d) Langileen ordezkaritza.

46. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, hitz hauetatik zein da ZUZENA?

- a) Aktoresa.
- b) Inmigrazioa.
- c) Paisajea.
- d) Espedientea.

47. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, nola idazten da 47.689?

- a) Berrogeita zazpi mila seiehun eta laurogeita bederatzi.
- b) Berrogei eta zazpi mila seiehun eta laurogeita bederatzi.
- c) Berrogeita zazpi mila seiehun eta larogeita bederatzi.
- d) Berrogeita zazpi mila seirehun eta laurogeita bederatzi.

48. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, esaldi hauetatik zein EZ da zuzena?

- a) Hiru asterik behin.
- b) Hiru astero behin.
- c) Hiri astetik behin.
- d) Hiru astez behin.

49. Zein EZ da hiztegia?

- a) *UZEI Sinonimoen Hiztegia*.
- b) *Hiznet Hiztegia*.
- c) *Labayru Hiztegia*.
- d) *Morris* euskara-ingelesa hiztegia.

50. Non EZIN da hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskatu?

- a) UEMAn.
- b) NUETSen.
- c) Nafarroako Kultura eta Hizkuntza Politika Departamentuan.
- d) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan.

ORDEZKO GALDERAK

O1. Sánchez Carriónnek honako elebitasun mota hauek daudela dio:

- a) Pertsonala, lurraldekoa eta psikolinguistikoa.
- b) Pertsonala, lurraldekoa eta soziala.
- c) Pertsonala, lurraldekoa, soziala eta psikolinguistikoa.
- d) Lurraldekoa, soziala eta psikolinguistikoa.

O2. Euskararen garapen soziolinguistikoan, non jarri da hizkuntza biziberritzeko lehentasuna?

- a) Familia transmisioan eta hezkuntzan.
- b) Aisialdian eta komunikabideetan.
- c) Komunikabideetan eta hezkuntzan.
- d) Familia transmisioan eta aisialdian.

O3. Euskalkien erreferentziazko sailkapenak egin dituzte:

- a) Sánchez Carriónnek eta Mirandek.
- b) Sánchez Carriónnek eta Bonapartek.
- c) Zuazok eta Mirandek.
- d) Zuazok eta Bonapartek.

O4. Euskara batuaren sorrerari dagokionez:

- a) Nafarrera ez zen kontuan hartu.
- b) Euskaltzaindiak bulkatu zuen.
- c) Koldo Zuazo izan zen bulkatzaile nagusia.
- d) Bizkaiera hartu zen oinarritzat.

O5. Zein EZ da euskararen zuzentzailea?

- a) Hobelex.
- b) Xuxen.
- c) Idite.
- d) Ingura.